

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

217 positibo berri
6.656 positibo guztira*

1.711 hildako EAEn
48 UCIn EAEn

NAFARROAN

166 positibo berri
10.577 positibo guztira

536 hildako
11 UCIn Nafarroan

*HERNANIN 192 (+8), ASTIGARRAGAN 41 (+3)

TOKIKOM



«Kontxa irabaztera irtengo gara»

URUMEA
ARRAUNA

12



Inmakuladak orain Aratz du izen berria

HERNANI
HEZKUNTZA

6-7



Portalondo estankoa ere arigune izango da Euskaraldian

HERNANI
EUSKARALDIA

16

Sormena, Kubara pasaportea

Amaia Azkue abeslari eta musikari hernaniarrak antzerki konpainia sortu du eta Karibeko irlara joango da bi obra aurkeztera. «Kubako Fábrica del Arte Cubanoko zuzendariari bidali genizkion gidoia eta obretako informazioa eta erantzuna baiezkua izan zen: '¡encantados de que vengáis!».

2-4



Hezkuntzan grebara joango dira hilak 15ean

URUMEA
ESKOLARA BUELTA

10



Euskaltegietan matrikulatzeko epea zabalik

URUMEA
EUSKARA

9

TALLERES JUANTXO

Juan Ignacio Rodríguez

▼ Diagnosi unibertsala

▼ Neumatikoetan aukera zabala

▼ Aire egokituaren karga eta konponketa

▼ Suspentsioak, Balaztak

▼ Olio aldaketak. Mekanika orokorra

ESKAINITZA NEGU ETA UDAKO NEUMATIKOETAN

Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
Larunbatetan: 10:00 - 13:00

Andre kalea, 60 (Atzietas) Hernani Telf: 943 25 66 08 tallerjuantxo@gmail.com

IRUBIDE JATETXEA

Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

Zure bizitza **EUSKARAZI!**

Matrikula irekita irailaren 2tik 18ra

Maila guztiak: aurrez aurre eta autoikaskuntza
Moduluak: astean 2 edo 4 egun
Eta azterketak: HABE, IVAP, Perfilak...
Titulu ofizialak: euskaltegian lortzeko aukera!

Bulegoko ordutegia:
09:30 - 13:30 / 16:30 - 19:30

Dirulaguntza handiak!
Etorri galdetzeraz!

Karobieta 63, Hernani
Tel. 943 331 896 688 826 539
euskaltegi@hernani.eus

20/21 ikasturtea

HERNANIKO Udal Euskaltegia

Hernanitik Madrilera eta bertatik Kubara, oihartzuna izan du Azkueren sormenak

Antzerki konpainia sortu du hernaniarrak eta Kubara joango da bi obra aurkeztera.

HERNANI AMAIA AZKUE

Asko dira beraien ametsak jarraitzeko sorlekutik hegan egin eta beste herrialde batera joaten direnak. Ingelesa ikastera Ingalaterra edo Erresuma Batura, ingeniartzako masterra egitera Alemaniara, edota beka berezi batekin laguntza humanitarioa eskaintzera, Afrikako eskualde batera.

Baina errealitatea bestelakoa izaten da batzuetan, zure etxea uztea eta gertukoetatik aldentzea zaila izaten delako. Lagunei eta familikoei denbora baterako agur esan eta bakarrik alde egitea ez da erraza izaten, kasu gehienetan.

Hala ere, Amaia Azkue hernaniarrak argi izan zuen zein zen buruan zuen ideia, amarekin hitz egin zuenean: «Egia esan instintoa izan zen. Barruan sentitu eta esan nuen: zergatik ez?», azaldu du.

Azkuek beti izan du gustoko kantatzea. Hernanin eta lurralde mailan, baita ere, hamaika kontzertu eskaini ditu. Txikitatik datorkio pasio hori, familian musika eguneroko protagonista duelako: «Txikitatik musika eskolan, gurasoak ere emusika munduan... Amona ere beti egon izan da musikarekin lotuta; saltxera bat da! Elizan, organoa jotzen zuen, zaharren egoitzara ere joaten zen... hortik dator nire pasioa: txikitatik».

Lehen kontzertuak bakarrik egiten zituen, «antzezlan mundua oraindik ez nuen ezagutzen». Baina amari esker lortu zuen bere beste pasiotako bat deskubritzea: «Amak esan zidan: zergatik ez duzu horrelako zerbait egiten?». Eta orduan joan eta probatu egin nuen».



Udako oporretan etxean egoteko aprobetxatu du Azkuek, Hernanin.

Baina atzera begiratu eta gaur egun non egongo zen galdetu izan baliote, ziurrenik Donostiako psikologiako fakultatean egongo zela erantzun zuen. «Argi nuen psikologia ikasi nahi nuela», azaldu du Azkuek. «Horregatik, bat-bateko erabakia izan zen Madrilera joatea».

Hala ere, Donostian geratzea ez zen hernaniarraren lehenengo aukera: «Nire buruari esaten nion: imajinatzen naiz ni hemen, Donostiko Unibertsitatean 4 urtez ikasten?». Argi omen zuen Madrilera joatearen ideia: «gauza berriak ikasi eta esploratu egin nahi nituen... eta horixe egin nuen», esan du.

Hernanitik Madrilera, arte eszenikoak ikastera

Gaur egun Azkue hernaniarrak 3 urte daramazki Madrilen. Arte Eszenikoak eta Interpretazioko Gradua ikasten du, TAI Unibertsitatean (*Centro Universitario de Artes en Madrid*).

Zer den galdetu diodanean, Azkuek begirada altxa du, erantzuna, nonbait, Kronikako biler gelako zapaiean egongo balitz bezala... eta irrifarre zintzo bat oparitu dit. «Zaila da TAI zer den azaltzen» onartu du.

Rey Juan Carlos Unibertsitate barruan dagoen zentrua da TAI. «Konposizio musikala, zinea edo artea lantzen dira, beste diziplinen artean. Nik

Arte Eszenikoak eta Interpretazioko Gradua egiten dut: zinea, eszenografia, zinearen historia, antzerkiaren historia, kamara aurrean nola egon... popurri bat. Aktore izateko dago zuzenduta gradua». Orain hirugarren mailan dago hernaniarra, eta azken urtea egitea falta zaio ikasketak amaitzeko.

«Amak esan zidan kantuarekin zerikusia duen zerbait begiratzeko. Hemen, Euskal Herrian, unibertsitate publikora jende asko aurkezten da arte dramatikorik eta oso plaza gutxi daude. Gutxi gorabehera diot, baina 300 pertsona aurkezten dira eta 20 hartzen dituzte», kontatu du.

TAI zentrua gustatu zitzaion

Azkueri, «kantua, dantza eta antzezlan lantzen direlako». Hitz gutxitan, «denetarik ematen duen unibertsitatea da», laburbildu du.

Hernanitik atera eta Madrilera joan zen 18 urte zituela. «Sekulako aldaketa izan da herri txiki batetik atera eta Madril bezalako hiri haundi batean sartzea». Baina uneoro dabil gauza berriak ikasten bertan, eta asko gustatzen zaio bere bizimodu berria. «Madrilen mundu guztiak gauza berriak egin nahi ditu beti, eta lagun berriak egiteko prest daude denak».

Unibertsitatean jende berri pila ezagutu du Azkuek. Madrilgoak, espainolak, eta baita ikas-

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
B. Los Arcos, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, I. Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:



Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

TOKIKOM



**DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK**



Amaia Azkue 'O.A.S.I.S.' obran, zuzendari lanetan.

«Joxan Goikoetxeari asko diot eskertzeko: dena berak eskaini dit. Niri hasieran lotxa ematen zidan, baina berak asko animatu ninduen mundu honetan sartzeko»

«Kubako Fábrica del Arte Cubanoko (FAC) zuzendariari bidali genizkion gidoia eta obretako informazio guztia. Dokumentuak irakurri eta erantzun zigun: '¡encantado de que vengáis!'»

le internazionalak ere: «mundu osoko jendea dago hemen».

Madrilgo hirian murgiltzeak abentura pila ekarri dizkio hernaniarrari eta etxera itzultzean, zaila egiten zaio azaltzea unibertsitatean egiten duena. «Konplikatu da, ez da ulertzen... gurasoei ere, kosta egiten zaie batzuetan», esan du. «Jendeak esaten dit: baina, hori zer da? Lagunek aholkuak ematen dizkirate, baina ez da zehazki batzuetan beraiek ulertzen duten bezala».

Eta beraz, zenbaitetan konplikatu da Madrilgo TAIen ez dauden horiei azaltzea bertan zer lantzen duten. Zentruan dantza, zinea, abestia edota an-

tzerkia bezalako diziplinak lantzen dituzte. Obra berriak sortu, genero berriak landu... Artistak dira bertan dauden ikasle zein irakasle guztiak.

Madrilera joan zen Arte Eszenikoak eta Interpretazioko Gradua ikastera hemen ez dagoelako «aukera publiko zabala horrelako ikasketak egiteko». Hala ere, Euskal Herrian kultura aldetik laguntza asko daudela azaldu du. «Baina gero ez da hain erraza arte hauekin lotura duten ekitaldiak edo topatzea...».

Izan ere, «Madrilen aukera gehiago dago: jendea antzerki munduan gehiago murgiltzen da. Euskal Herrian, orokorrean, jendea ez da antzerkira joaten»,

azaldu du. «Eta alderantziz, Madrilen beti daude antzerki berriak», gehitu du.

«Orain beste pasio bat deskubritu dut: zuzendari izatea»

Madrilera joan arte abestu bakarrik egiten zuen Azkuek. Hernaniko Abesbatzan ibilitakoa da, eta Preludioan ere kantatu du. Herriak horrela ezagutzen du, abeslari moduan.

Hala ere, abestea «pixkat bat aparkatua dut orain», kontatu du. Izan ere, TAI Unibertsitatean murgildu zenean antzerki mundua ezagutu zuen. «Beste pasio bat deskubritu du: zuzendari izatea». Eskolan antzerki klaseak ematen dituzte, eta nola zuzendu ere irakasten diete. «Mundu honetan sartu nintzen eta liluratu egin ninduen».

Azkuek, gainera, ez du aukerarik galtzen unibertsitatean. «Matrikula oso garestia da, baina zuku guztia atera behar zaio fakultateak eskaintzen duenari», esan du.

«Aurrekoan hitz egin nuen TAI n ikasi nahi duen mutil batekin. Oso garestia da eta aukera guztiak aprobetxatu behar dira. TAIk ematen dizuna hartu behar duzu: aprobetxatu akademikoki ematen dizutena eta han dagoen giroa: konpositoreak daude, zinea egiten duen jendea...

koordinatzailea ezagutu eta proiektu berrietan murgildu», kontatu du hernaniarrak.

«Aukerak aprobetxatu behar dira», eta hori da Azkuek egin duena bere ibilbide osoan zehar. «Bideokastingak egin ditut. Euskal herrian Akelarre pelikularako kastinga egin nuen eta figurazio berezi baterako hartu ninduten. Sekulako esperientzia izan zen, oso pozik nago».

Guztiaren gainera dio, bide honetan asko diola eskertzeko Joxan Goikoetxeari. Musika eta abestea protagonista izan dira etxean txikitatik, baina Goikoetxeak animatu egin zuen Azkue oholtza gainera igotzea.

«14 urterekin hasi nintzen bakarrik abesten. Eta fantaseatzen duzu, ezta? Kontzertu bat egin nahi dut hemen... Baina gero, Joxanek esaten zidan: hau egingo dugu, hemen. Lankidetzaren osoa izan da eta berari esker izan dira MaiteK musika emanaldia edo Sortuko dira besteak», berarekin egin dituen beste proiektu askoren artean, azaldu du.

Musika eskolan zegoela, *Zeru Horren Infernuak*. W.Shakespeare - *Sonetoak*. Azterna (2014) Joxan Goikoetxearen diskan parte hartzera gonbidatu zuen Azkue, eta azken honek ez zuen zalan-tzarik izan. Kolaborazio bat egin zuen Goikoetxearekin diska ho-

rretan, baina beste asko ere egin dituzte elkarrekin.

Madrilatik Kubarako pasea eman dio zuzendari izateak Pixkanaka-pixkanaka, ibilbide artistikoa zabaltzen joan da Azkue, eta oihartzuna izan du lurralde mailan, baina baita maila internazionalen ere.

Graduak eskaini dizkion aukera guztiak aprobetxatu ditu eta entzun dugunez, fakultatean ezaguna da hernaniarra. Azken hau aipatzean, ordea, ez du baiezkorik eman izan nahi, musu gorrituta.

Javier de Luis bere gelakide batekin Paroxa konpainia sortu zuen, Madrilen. «Paroxismoa da, hiztegiaren arabera, min edo gorespen baten puntu gorena», azaldu du. «Ona edo txarra izan daiteke».

De Luisek monologo batean laguntzeko eskatu zion hernaniarrari. «Laguntzen didazu hau montatzen? esan zidan. Eta nik: bale!». De Luis dutxatik atera eta bapatean bururatu zitzaion ideia paper batean idatzi zuen. «Eta hortik sortu zen 'Miradas de Plástico' monologoa».

Madrilgo sala batean egon dira hilabete eta erdi, asteazkenero, Amaia Azkuek zuzendutako monologoa aurkezten. Javier de Luis protagonista eta obrako egi-

«Zineman erosoago nago, baina antzerki mundua asko gustatzen zait. Azken honetan, antzerkian, gehiago ikusten dut nire burua zuzendari moduan. Eta zinean, aldiz, aktore bezala»

lea da, eta César Vonrom eta Cristina Masoni italiarra dira gai nontzeko aktoreak. «Prostituta transgenero baten istorioa kontatzen dugu». Poesiaz betetako obra omen da, 'Miradas de Plástico'. «Ensaioan zehar deskarteak egin genituen, batzuetan poesia hutsa zelako», kontatu du Azkuek.

Paroxa konpainiaren barruan ere, beste obra bat sortu zuen hernaniarrak, 'O.A.S.I.S.', bere gelakide eta konpainiako kide den De Luisekin batera. «Nire konfidente da», kontatu du. Berarekin batera sortu zuen antzerki hau. «Inprobisazio obra da, orain asko ematen ari dena. Genero berriak esploratzen ari gara». Azkue espektakulo barruan dago, zuzendaria bada ere: «obran zehar aktoreak kokatzen edo beraiei estimululuak botatzen nago».

Hala ere, azken hau «erdibidean» gelditu zen, Koronabirusagatik ezin izan zutelako ensaiatu. «Baina hau ere eramango dugu Kubara», kontatu du, ilusioz.

Izan ere, 'Miradas de Plástico' sortu zenean, Azkueren fakultateko koordinatzaileak, Marica Perezek, Paroxa konpainiak sortutako bakarriketaren berri izan zuen. «Oso ondo moldatzen gara berarekin eta beti lagundu izan digu Javi eta niri konpainiarekin». Izan ere, azaldu du behin produktua eginda, ez dela hain erreza distribuzioa egitea. «Guk materiala genuen, baina ez genekien nola banatu edo jendearengan interesa nola piztu... mundu bat da».

Lanean murgilduta zeudela, Perezek esan zien: «Kubara joan zaitezke zuen bi obrekin». Antza denez, Azkue eta De Luisen koordinatzaileak Kuban egin zuen masterra. Bertan, *Fábrica del Arte Cubanoko* (FAC) zuzendaria ezagutzen du eta beraz, ideia ona iruditu zitzaion Azkuek zuzendutako ikuskizunak itsasoaren beste aldean ezagutaraztea. «Bertako zuzendariari bidali genizkion gidoia eta obretako informazio guztia. Dokumentuak irakurri eta erantzun zigun: *¡jencantado de que vengáis!*».

Eta horrela iritsi zen Kubako proiektua. «Nahiko inkontzienteki», dio Azkuek. Ekainean ziren joatekoak, baina Koronabirusak galarazi egin die momentuz joatea. Hilabeteko igande guztietan aurkeztuko zituzten obrak, hiru pase egunean: bi 'O.A.S.I.S.' eta bat 'Miradas de Plástico'.

Beharbada egunen batean Euskal Herrira iritsiko dira obrak. «Horretan gabiltza. Lagunek esaten didate: noiz egingo duzue bakarriketa hemen?». Hernanin egin nahi duela azaldu du Azkuek, «baina zalantzak ditut bietako zein obra aurkezteko... auskalo, pentsatuko dut!».

Baina Hernanin obra aurkeztearen inguruan dio, «ez da berdina kantatzea edo gure gauzak erakustea». Horregatik, «inpresioa» ematen dio Madrilen sortutako espektakuluak herriari aurkeztea. «Nik ez dut lotxarik zerbait egiteko eskatzen didatean; aurrera egiten dut. Baina zuk egindako zerbait denean... beste gauza bat da».

Euskal Kulturaren inguruko obraren bat egitea pentsatzen ari da Azkue, baita ere. «Baina errespetu haundia diot». Iraila hasieran Joxan Goikoetxearekin 'Iparragirre eta Lete: Bi min kantuan' aurkeztuko du Zumarragan. «Oso polita» da obra, kontatu du. «Joxanek egiten ditu horrelako gauzak eta jakintza du euskal kulturaren inguruan, baina niri beldurra ematen dit».

Madrileko lagunei euskal kulturaren berri eman zienean, «asko harritu zidan zer gutxi dakiten honen inguruan», kontatu du. «Proiektu txikiak» egiten dituzte unibertsitatean, eta Azkuek Euskal Herriko kulturaren parte diren kontakizunak eta istorioak aurkezten ditu.

«Etorkizunean ere artearen aldeko apustua egin nahi dut»
Azkuek gradua amaitzean artearen aldeko apustua egiten jarraitu nahi du. «Paroxa konpainia sortzearena gure ideia izan da. Asko inpultsatzen dute TAI n gure lana egin eta produktu propioak sortzeko». Horregatik, horretan jarraitu nahi du hernaniarrak.

«Oso zaila da aktore izatea, hori da errealitatea. Jendeak publizitatea egiten bukatzen du, edo bestelako lanetan...», gehitu du. Aktore izateko eta tele-sail, film edo orokorrean, zinean, arrakasta izateko «zortea izan behar duzu», beste faktore batzuen artean. «Ez hori bakarrik, lan asko egin behar da», esan du. Hala ere, Azkuek dio argi duela zer egin nahi duen. «Nik ez dut bizitza hori izan nahi, nire lan propioa egin nahi dut».

Etorkizunari begira, hirian jarraitzea pentstau du. «Ideialena Madrilen geratzea da, luzez: gi-



Javier de Luis Azkuerekin, 'Miradas de plástico' monologoan.

«Euskal Herrian ez dago aukera publiko zabala horrelako ikasketak egiteko»

roagatik, lan aukerengatik... oso zentratua egoten naiz nire lanean. Nire ikasketan lana bilakatu dira hemen». Latina auzo inguruan bizi da Azkue eta dio, bertan bizitza «ondo» duela. «Gustora sentitzen naiz».

Hala ere, herria eta etxea ez ditu ahazten. «Asko botatzen

dut faltan Hernani. Madrilen ez naiz geratzen, oso lanpetuta egoten naiz». Hori du bere lanbideak, hain zuzen. Kontatu du goizeko 09:00etan esnatzen dela eta 10:00etan hasten dituela klaseak. Gero, 12:00ak arte entsaiatzen egoten dira, eta ordubeteko atsedenaldiaren ondoren gaueko 22:00ak arte egoten da berriro entsaiatzen edo ideia berriak pentsatzen eta «informazioa bilatzen».

Afizio guztiekin jarraitzeko astirik ez du, Madrilen. Izan ere, kantua, zinea eta interpretazioa bai, baina bada Azkueren pasioa den beste zerbait: errugbia. «Gaur horrekin amestu dut... asko botatzen dut faltan». Bi urtez egon zen Hernaniko taldean,

baina lesio batek galarazi egin zion jarraitzea. Gero, Madrilen, Cisneroresen, beste urtebete egin zuen. «Oso lanpetuta nengoen eta utzi egin behar izan nuen. Gainera, oso talde potentea da eta konpromiso haundia eskatzen zuen bertan egoteak».

Ikasketak bukatzeko urtebete bakarrik gelditzen zaio Azkueri. Gradu Amaierako Lanean errugbia eta interpretazioa fusionatzea pentsatzen ari da. «Errugbiak asko lagundu dit interpretazioan». Horrela, pasio askotako hernaniarra da Azkue. Amets bat betetzera joan zen Madriler a eta han geldituko da, momentuz. Bertan ditu ikasketak, lanbidea eta zaletasunak lantzen jarraitzeko aukera. **K**

«Ziurtatzen dut kalitatezko materialekin egiten dugula lan, eta bizi osorako garantiak dauzkagula»

Hernaniko Iraola Hartz Klinikak, jabe berria du, Roberto Mateo hain zuzen. Kalitatezko materialekin egiten dutela lan ziurtatu du, eta beste kliniketan eskaintzen ez diren hainbat zerbitzu eskaintzen dituztela ere azaldu du.

HERNANI IRAOLA HORTZ KLINIKA

Hernaniko Iraola Hartz Klinika, herriko klinika erreferentea izan da 30 urtetan. Urte luzez klinika hau Javier Iraolak eraman du, baina jubilatutako egin zen 2020aren hasieran, urtarilean, hain zuzen, eta klinikak jabe berri bat behar zuenez, Roberto Mateok apustua egin eta klinika honen gestioa eramango zuela erabaki zuen. Robertok dio, bera ez dela odontologoa, berak klinika kudeatzen duela, «hortz sektorean egin dut lan urte luzez, salmentetan zehazki. Enpresa ezberdinetan egin dut lan, hauek guztiak odontologiarekin zerikusia zutenak, haien artean, inplanteak». Hori horrela, denbora batez pentsatuz, kalkulatu eginez, klinikarengatik apustua egitea erabaki zuen Robertok.

Klinika honetan, «nik marketina eramaten dut, kontabilitatea, administrazioa...» eta aldiz, odontologiaren arduratzen diren lizentziadunak dauzkataldean, «oso profesionalak dira egia esan, lan bikaina egiten dute». Robertok jakinarazi du, orain berak ireki duen klinikak zerbitzu gehiago dauzkala, eta «kalitatezkoak gainera», hau da, lehen zeuden zerbitzuak baino gehiago daude oraineko klinikan,



Roberto Mateo, martxoan, Iraola Hartz Kliniketan.

«eta eguneratuagoak gaude. Eta orain odontologoek erabiltzen dituzten teknikak oso ezberdinak dira, eta gure kasuan horrela gertatzen da. Guk hemen, diziplina ezberdinak lantzen ditugu, eta odontologo bakoitza diziplina batean espezializatzen da». Robertok dio, hainbat espezializatutako osatzen dutela gaur egungo Iraola Hartz Klinika, hala nola, kirurgialari bat, entodontziak egiten dituen espezializatu bat ere, eta protesiak egiten dituen bat.

Horrez gain, ortodontzia zerbitzua oraindik ez duela eskaintzen aipatu du, «azkenean orain arte eduki ditugun bezero gehienak, pertsona helduak dira, eta hauek ez dute ortodontzia egiten, ez ditugu bezero gaz-

teak, baina gure asmoa zerbitzu hau eskaintzea da aurrera begira noski». Gainera, aipatu du, zerbitzu publikoek eskuragarri jarritako Padi eskainiko duela 2021 urtetik aurrera, honekin haurrentzat deskontuak lortu daitezke, «tratamenduaren zati bat Padi zerbitzuak ordaintzen du, eta gainerakoa gurasoek ordaintzen dute. Aipatu moduan, ortodontzia egiten dutenen %80a haurrak izan ohi dira, Padiaren bidez eginak. Hori horrela, 2021etik aurrera eskainiko dugu ortodontzia zerbitzua».

«Ez gara frankizia bat»

Azken aldian, hainbat bezero gerturatu zaizkio Robertori «ea Iraola Hartz Klinika frankizia bat bihurtu den» galdetzeraz,

eta Robertok argi utzi du ez dela hala, «ez gara frankizia bat» gaineratuz. «Azkenean, ni odontologiarekin zerikusia duen lanetan ibili naiz urte askotan, 15 urtetan zehazki. Nik, hainbat odontologo kontratatu ditut, eta ez edonolakoak, oso profesionalak dira, Kataluniako Unibertsitate Internazionaletik etorritako odontologo bat daukat taldean, gainera odontologia esparruan, munduko unibertsitate onenen artean dago, eta gainerakoak EHUKoak dira, baina denek dute oso maila altua, eta esan moduan, profesionaltasuna erakutsi dute orain arte».

«Besteengandik bereizten gaituen hainbat zerbitzu»

Iraola Hartz Klinikak, hain-

bat abantaila eskaintzen ditu, eta bik dute garrantzi gehien. Alde batetik, garantiak, «ematen ditugun garantiak, bizitza osorako dira, egia esan uste dut Espainian ez duela inork ematen zerbitzu hau, eta guk bai. Inplante bat egiten denean, ez da bizitza osorako, azkenean zaintzak asko egiten du. Badaude inplanteak bizitza osoa iraun dezaketenak ongi zainduta eta urteroko errebisioekin, baina posible da 5, 10, 15 urtera inplantea erortzea. Beraz, inplante berria jartzeko, klinika gehienetan ordaindu egin beharko da. Gure klinikan ez dugu inplantea kobratuko, egindako lana bakarrik, kasu honetan kirurgialariarena. Azkenean bezeroak inplanteetan eta piezetan aurreztuko du».

«Kalitatezko materialak, eta bizitza osorako garantiak»

Aipatu moduan, Robertok urte asko egin ditu odontologia esparruko salmentak egiten, eta «oso ondo» ezagutzen ditu materialak, eta gainera Euskal Herriko odontologo askoren feedbacka dauka, «nik hainbat odontologok ez dituzten ezagutzak ditut, izan ere, material bakoitzaren ezaugarri eta ikasketak daukat, eta horrez gain, emaitzak dakizkit, material bakoitzak zer nolako emaitzak izan dituen».

Horregatik, Robertok, bere ezagutzari ematen dio garrantzia, odontologiako material «guztiak» ezagutzen dituelako. Hori horrela, Iraola Hartz Kliniketan, «kalitatezko materialekin egiten dugu lan, garrantzia onenekin, eta lehiakorren prezio batekin». Azkenean Iraola Hartz Klinikara doan bezeroak kalitatezko materialekin joango dira etxera, «nik ziurtatzen dut kalitatezko materialak ditugula Iraola Hartz Kliniketan, eta eskuragai jarritako bizitza osorako garrantzia ez dela toki askotan topatzen, gurena bai ordea». **K**

Iraola

Hartz klinika

ODONTOLOGIA ESTETIKO KONTSERBATZAILEA
ENDODONTZIA
AHO ERREHABILITAZIOA

INPLANTOLOGIA
PERIODONTZIA
3D ESKANERRA

TELEFONOA
943 55 44 55

HELBIDEA
Andreale Kalea 50 - 1D

ORDUTEGIA
8:00 - 18:00, astelehenetik ostiralera

«Ikastetxean eman den aldaketa prozesuaren beste urratsetako bat izan da, izen aldaketa»

Azken urteetan egin dituzten aldaketak islatzeko aldatu du izena lehen Inmakulada Ikastetxea zenak. Orain Aratz izena du, eta berrikuntza honekin zentroa «erabat» aldatu dela erakutsi nahi dute bertakoek. Ikasketa buruarekin hitz egin dugu, gaiaz.

HERNANI ARATZ IKASTETXEA

1883. urtean sortu zen gaur egun Aratz Ikastetxea dena, nesken-tzat bakarrik. Aldaketa ugarri eman dira ordutik, eta gaur egun metodologia berritzaile batean oinarritzen dute eskola, «ikaslearen irakaskuntza-ikas-kuntza prozesuan egokitua eta bikaintasunerantz, aniztasuna zainduz». Diote, ikaslea ikas-kuntza prozesuaren «benetako protagonista» dela. Ikastetxearen izena aldatzea erabaki zuten urte honetako ekainean eta guk Eli Sanguino ikasketa buruarekin hitz egiteko aukera izan dugu.

Sanguinok azaldu du koronabirusaren aurretik ekitaldi bat egin nahi zutela, azken urteetan eman dituzten aldaketa guztien berri emateko. Hala ere, hori ezinezkoa izan zen, larrialdi egoeratik. Horregatik, sare sozialen bitartez moldaketa eta aurrerapauso berri guzti horiek pixkanaka azaltzen ahalegindu ziren. «Presentzia haundia dugu sare sozialetan. Ikastetxe barruan egiten duguna zabaldu nahi dugu eta horretarako hauek tresna onak direla pentsatzen dugu».

Baina ikastetxearen izen aldaketa ez da besterik gabe egin den zerbait. Ideia iaz sortu zen, «ematen ari ziren aldaketa guztiak islatzeko arazoak izaten ari ginelako», azaldu du Sanguinok. «Jendeak ez zuen ikusten aldaketak ematen ari zirenik». Inpotentzia kutsu batekin azaldu du kanpotik Aratz Ikastetxeak duen irudia: «Izena euskaldundu nahi genuen, hemen ere euskaldunak garelako. Jendeak uste du hemen erderaz egiten dugula edo ez dugula D eredurik, baina hori ez da horrela».

Sanguino andoaindarra da, baina urteak daramatza Hernanin murgilduta. 9 urte pasa dira Aratz Ikastetxera lehenengoz iritsi zenetik, eta «ni sartu nintzeneko ikastetxea ez da orain dagoena», azaldu du. Aspaldi hasi ziren aldaketak ematen, baina «azkeneko hiru urtetan aldaketa dexente egin ditugu». Eta horregatik izan da, hein batean, izena aldatzearena: «erakutsi nahi dugu barruan aldaketa egon dela. Ez gara garai bateko Inmakulada, orain Aratz Ikastetxea gara».

«Nola esango diozu pertsona bati pareta hau txuria dela, ez bada gerturatzen?»

Herriko gainontzeko ikastola eta eskolen modura, Aratz Ikastetxeak etiketa zehatz bat du. «Gurekiko jendearen aurreiritzia uste dut dela, batetik, hemen ez dugula euskeraz egiten, eta bestetik, mojen kontua». Izan ere, Aratz Ikastetxea Kristau eskola da eta Karitate Alabakena da. Hala ere, «ez da garai bateko Karitate alaben eskola hori; asko aldatu da».

Sanguinok argitu du kristau eskola izateak metodologian ez duela zerikusirik. «Nahiz eta kristau eskolen elkarte haundi baten parte garen, bakoitzak bere metodologia propioa du. Kristau eskola izateak ez du guregan ildo berezirik zehazten».

Bestalde, mojak komunitatean daude, ikastetxean bizi dira eta maitatuak dira zentroan, baina «irakasleen perfila erabat aldatu da ikastetxea sortu zenetik». Herritarren ustea omen da Aratzen mojek eskolak ematen dituztela, baina «ez dira ikaske-ta prozesuan murgiltzen». Momentu honetan klaseak ematen dituen moja bakarra dago, «oso

«Hernaniko kristau eskola erlijioso bakarra gara eta erlijioarekin egiten dugun lanketak oso anitza izan behar du, guztiek parte hartu ahal izateko. Badugu erlijioan sinesten ez duen ikaslerik ere»

gaztea eta dinamika».

Aratz osatzen duten ikasleengatik ere aurreiritziak omen daude herrian. «Denetarik dago: «hernaniarrak, familia euskaldunak, kanpotarrak, inguruko herritatik datozenak». Azaldu du «lan haundia» dutela, orokorrean, irudiari buelta ematen. Baina Sanguinok harro eman du ikasketxeko oinarri diren ikasleen berri. «Oso aberasgarria da kulturartekotasuna ezagutzea eta beraien artean errespetatzen direla ikustea. Izan



Eli Sanguino, ikasketa burua, Aratz Ikastetxeko jolastokian.

ere, hori da askotan gizarte moduan gertatzen zaiguna, aurreiritziak ditugula. Umeek ez dute ondokoaren azal kolorea erreparatzen, edota ez diote elkarri galdetzen ea nongoak diren; alderantziz, elkarrekin jolastu eta elkar ezagutzen dute, inolako aurrejuiziorik gabe».

Honen inguruan, Sanguinok Aratzen gertatutako anekdota baten berri eman du. «Haur hezkuntzan klase ematen ari nintzen eta ariketa bat proposatu nuen: besteen deskribapena egitea, esanez, adibidez, lagunak ile kizkurra ala horia zuen. Une hartan neska beltzaran bat ater zen erdira, eta inork ez zuen bere azal kolorea aipatu». Dio pozgarria izan zela momentu hura eta kasu horretan, umeek lezioa eman ziotela irakasleari. Samurtasunez egin du gogoeta andoaindarrak: «hemengo ikasleei berdin die bere albokoa nongoa den jakitea; guztiek berdin jokatzen dute lagunuen aurrean».

Erlijioari dagokionean, Aratz Ikastetxea Karitate Alabakena den aldetik eta kristau eskola izateagatik, erlijiosoa da. Hala ere, «erlijioa emateko moduari ere buelta eman diogu eta orain baloreetan oinarritzen gara», esan du ikasketa buruak. Argi utzi nahi izan du Aratz ikastetxean izena ematen duen ikasleko gehienak ez duela erlijioagatik egiten, «hemen beste gauza batzuk ditugulako bai-zik». Noski, «hemen sinesmen guztiak errespetatzen ditugu»,

azpimarratu du.

«Irakasleen plantilla asko

«Ikastetxe txiki bat gara eta lan egiteko aldetik zoragarria da, pasada bat. Familia bat gara, irakasleen artean, ikasleekin eta ikasleen familiekin. Oso giro familiarra eta polita, baina beti arriskuan gaude»

aldatu da»

Duela ia 140 urte sortu zen Inmakulada Ikastetxea, eta kuriosoa izan da bertara sartu eta jende gaztea ikustea lanean. Behar-bada perfil helduagoa eta nolabait esateko, itxura guztiz ‘erlijiosoa’ zuena espero genuen, baina atea emakume gazte eta euskaldun batek ireki du: Eli Sanguinok. Ikasketa burua eta ikastetxeko zuzendaritzako kide da.

Ilusioz aritu da gaur egun Aratz osatzen duen irakaslegoaz hitz egiten: «Irakasleak indar haundia du hemen, beti gauza berriak eta eraginkorrak egiteko prest, nahiz eta etxean mila ordu sartu behar dituzten». Adierazi du irakasleen inplikazioa «mundiala» dela.

Nabari da Sanguinok pasioz egiten duela lan eta irakaskun-

tza dela bere bokazioa. Ikasketa burua izateaz gain, mailaren batean eskolak ematen dituela azaldu du elkarrizketaren amaieran. Erreportajerako argazkiak ateratzera Ikastetxeko parkera joan garenean, irribarretsu kontatu du txikienekin aritzen dela lanean, Aratzen. «Garrantzitsua iruditzen zait ikasleekin kontaktua mantentzea eta ikastetxeko pertsona ezezagun baten moduan ez ikustea».

Herritarren aldeko apustua egiten dute Aratz Ikastetxean, irakasleak kontratatzerakoan: «gure politika azken urteetan izaten ari da Hernaniko jendea kontratatzea, hernaniarrak nahi ditugulako inplikatu gure hezkuntza sisteman». Gainera, azaldu du saiatzen direla «irakasle gazteak eta euskaldunak» plantillan sartzen, proiektu berritzaileak bilatzen dituztelako hezkuntza sisteman.

«Neurohezkuntzan oinarritzen dugu gure metodologia»

Zientifikoki probatua, funtzionatzen duena eta garunean oinarrituta dagoen metodologia omen da neurohezkuntzarena. Aratz Ikastetxean hau dute oinarri, ikasleen hezkuntza prozesurako. «Neurohezkuntza oinarritzen da garuna garatzean, eta garunak ikasten duenaren arabera irakastea».

Azken hiru urtetan, batez ere, honetan aritu dira lanean, baina metodologian sakontzen

aspalditik daramate. «Gaur egun esan dezakegu metodologia hau ez dagoela leku askotan», onartu du ikasketa buruak.

Emozioak asko lantzen dira sistema honekin, «ikasleak emozionalki gaizki baldin badaude, ezin dugulako kontenido akademikoa eman eta gero ikasleek barneratu». Eta bestalde, txikien kasuan, alderdi fisikoa asko lantzen da neurohezuntzarekin. Adibidez, lau hanketan ibiltzea edota orokorrean, alde psimokmotorra lantzen dute. Izan ere, «honek zuzenean garunaren garapenean eragiten du eta horrela, haurren ikasketa prozesuan inpaktu zuzena du».

Sanguinok jakinarazi du neurohezkuntzaren metodologiarekin ariketa fisikoak egiten dituztela, «orekatuak egon behar garelako fiskoki eta emozionalki, ondo ikasi ahal izateko». Era berean, pentsamendu errutinak egiten dituzte. Ikasleari norbere ikaskuntza prozesuaren jabetza izaten laguntzen dion metodoak dira, eta «ikaskuntza aktiboa» garatzeko balio dutela adierazi du. «Ikasleen pentsamendua antolatu eta egituratzen laguntzen diguten pausu sekuentziak dira eta haurrei nola pentsatu irakasteko balio dute, antolatzaile grafikoaren bitartez», gehitu du.

Funtzio exekutiboak ere lantzen dituzte, hezkuntza prozesuan zehar. Azken hauen azalpena eman du: «funtzio exekutiboak ariketa jakin batzuk egiteko modu bat dira, ez kontzeptu bat ikasteko, baizik eta garunari funtzionatzeko modu bat erakusteko, gero horrela jarduteko». Funtzio exekutiboak landuz, haurraren garapen kognitiboa hobetzen da. Horretarako, atentzioa, inplussibitatearen kontrola edota memoria lantzeko ariketak egiten dituzte.

Metodologian sakontzearekin batera, beste hainbat aldaketa egin dituzte ikastetxean. Hain zuzen, ikas komunitatea sortu dute eta orain, gurasoen arteko inplikazioa eta Aratzek familiarekin duen kontaktua ere «estuagoa» da.

Gainera, neurohezkuntzarekin batera, proiektuak tartekatzen dituzte ikasketa-prozesuan. «Batzuk proiektuak dira eta beste batzuk ApSak», azaldu du. ApS-ak, erderaz, aprendizaje-servicio esan nahi du, eta «norbaiti edo zerbaiti laguntzeko proiektuak dira». Gehiago sakondu du Sanguinok, hauen inguruko azalpenean: «eskolan egiten diren proiektu globalizatuak dira, ikasgai guztiak barneratzen dituenak».

Horrela, azaldu dute, «ikas-teaz gain zerbitzu bat egiten



Eli Sanguino, ikasketa burua, Aratz Ikastetxeko logo berriaren aurrean.

dugu eta ikasleak gai horren inguruko kontzientzia hartzen doaz». Esaterako, aurten Karabelekorekin egin dute proiektua bosgarren mailako ikasleek. Bertan ibili ziren landatzen eta egin beharreko lanetan laguntzen. «Haiekin bazkaldu zuten, baita ere».

Odol emaileekin ere egin zuten bateratzea Aratz Ikastetxekoek eta zaharren egoitzan egon ziren, baita ere. Makina bat proiektu zituzten pentsatuta aurtengo ikasturterako, baina bertan behera gelditu behar izan ziren ApS batzuk, koronabirusagatik.

«Animaliekin edota Elikagaien Bankuarekin proiekturen

«Metodologia, ikas komunitatea eta tutoretza dira gure puntu indartsuenak»

bat egin nahi genuen eta Pausokarekin ere orain elkartzeokoak ginen», gogoratu du Sanguinok. Baina beste hainbat ekitaldi eta bateratzeen modura, pandemiak hauek egitea ekidin du.

Koronabirusa dela eta eskolak presentzialki ematea ere bertan behera gelditu zen. Jakina da ikasle askoren etxeko egoera, ikastetxe honetan ere, ez dela erreza izan. Hala ere, Aratz Ikastetxeak erraztasun guztiak eman dizkie ikasleei: «ordenagailurik ez duten familiei maileguan utzi dizkiegu eskolan daudenak».

«Ikusi dugunagatik pentsa-

tzen dugu ondo kudeatu gurela guztia. Hasieran kaosa izan zen, baina gero kontrolpean izan genuen». Izan ere, hasieratik ordutegi zehatza finkatzea erabaki zuten: «uste genuen errutina bat jarraitzea garrantzitsua dela». Azaldu dute txikienei fotokopietan banatu zizkietela egin beharrekoak, guztia «txukun» azalduta eta irakasgaietan banatuta.

Eta helduagoen kasuan, Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik gorakoek, online egin zituzten eskolak. «Gela barruan fisikoki egon izan balira bezala hartzen genuen ikasleen asistentzia. Saiatu gara hutsunea ahalik eta hobekien betetzen, klasean fisikoki gaudela simulatzen».

«Orain D eredua dugu, maila guztietan»

Orain arte Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan B eredua zegoen, «baina indartua». Hau da, ikasgai gehienak euskeraz egiten ziren, baina bazegoen gaztelaniaz egiten zen batenbat. Baina orain D eredua dute, maila guztietan.

Gainera, ikasle atzerritarak daudenez, gelara lehenengoz joaten direnean eta euskera menperatzen ez badute, gelatik kanpoko errefortzua egiten dute. «Haien zat pre-gelak ditugu eta IPIak (euskera indartzeko proiektuko irakasleak)». Modu honetan, euskera hitz egiten jarraitzen da gela barruan, jakinarazi du Sanguinok.

Euskeraren kontua ere buruhauste bat da zenbaitetan, Aratz Ikastetxekoentzat. «He-

men ere euskeraz egiten da eta hori azpimarratu nahi dut». Ikasle bakoitzak bere ama hizkuntzara jotzen duela azaldu du ikasketa buruak, baina «hemen gauden denboran behintzat, euskaraz egiten saiatzen gara une oro». Gainera, ikasleak herriak eskaintzen dituen euskarazko ekintzetan parte-hartzera animatzen dituzte Aratzen.

«Mila proiektu ditugu euskera bultzatzeko, baina ez dugu nahi hizkuntza inposatu eta umeek obligazio baten moduan ikustea». Horregatik, guzti hori erronka haundia dela aitortu dute ikastetxean.

Eta integratu ahal izateko hizkuntza edo kanpotik etortzea arazo bat ez dela ikusarazteko, dibertsifikazio programa ere badute Aratzen. «Dibertsifikazioa ez da atzerritarrentzat bakarrik; demagun ume bat beste ikastola batetik etortzen dela eta hango hezkuntza sistema gurearen oso bestelako dela». Bada, dibertsifikazio programarekin, perfil hau duten ikasleei laguntzen diete.

Ikasle kopurua baxutu egin da, azken urteetan

Ikasketa buruak azaldu du jaiotza tasa «ona» zenean ez zutela arazorik izan. Gainera, etorkinak Hernanira etortzen hasi zirenean «beste eskoletara eta gugana etortzen ziren». Hala ere, jaiotza tasa nabarmen jaitsi da azken urteetan eta horrek eragin zuzena izan du Aratz Ikastetxeko ikasleen matrikula kopuruan. Era berean, «hona zetozen kanpotar edo etorkinak beste eskoletan zehar zabaltzen hasi ziren eta horrek guri kalte

«Gure helburua etorkizunerako da Hernanira hurbiltzea eta herriko jendea guregana gerturatzea; jendea gurekin harremanetan jartzea eta aurreiritziak puskatzea. Herrikoak garela erakutsi nahi dugu»

«Beste eskolek herrian duten parte hartze berdina izaten saiatzen gara»

egin digu».

Ikaslego falta da, hain zuzen, momentu honetan Aratzek duen alderik ahulena. «Kontzertu ekonomikoak galtzeko arriskuan gaude». Hala ere, dio, «pentsatzen ari gara hau dena nola antolatu eta zer gertatuko den ikusteko dago oraindik... lanean gabiltza buru-belarri».

Baina etorkizunean «orain arte bezala elkarlanean eta laguntza eskaintzen jarraitzea da dugun helburua, eta familia bat izaten jarraitzea», azaldu dute. Diote uneoro dabiltzala teknologia berrien erabilera sustatzen eta ApS programak eta neurohezkuntza garatzen. Horregatik, etorkizunean ere, «ikastetxe berritatzaille» moduan ikusten du Aratz, Sanguinok.

Azkenik, aipatu zuen koronabirusaren inguruan datorren ikasturtean ez dakiela egoerak zer baimenduko dien. Baina bestela, «normal egingo dugu», esan zuen. «Gure ikasle kopurua ez da haundia eta gainera gelak zabalak dira. Horregatik, segurtasun neurriak nahiko ondo betetzen ditugula uste dugu».

Joan den ekainean ikasleek Ikastetxea Inmakulada ize-nez azkenekoz ikusteko aukera izan zuten, konfinamenduaren ondoren berriro ere elkarrekin egon zirelako. «Konfinamendua eta gero elkar ikusteko eta ongi pasatzeko aukera izan zuten ikasleek», esan du Sanguinok. Ikasturteari amaiera emateko bildu ziren Aratz Ikastetxeko patioan.

Hemendik aurrera horrela ezagutuko da lehen Inmakulada Ikastetxea zena, Aratz deiturarekin: «aldaketa hau gure aldaketa prozesuan eman dugun azken pausua da». Ikasturte berria hasteko bi egunen faltan, motibatuta eta gogotsu daude eskolekin berriro hasteko. **K**

Ospatu gabeko sakramentuak, irailean

HERNANI ELIZA

San Joan Bataiatzailea parro- kian ospatuko dira konfina- menduagatik egin ez ziren sakramentuak. Bihar sendo- tza izango da, arratsaldeko 19:00etan. Eta lehen-jaunar- tzeak irailaren 12an egingo dira, datorren larunbatean, eguer- diko 11:00etan eta 12.30etan; eta bataioak irailaren 13an, 12:00etan. Bestalde, Katekesian sartzeko izen-ematea ere abian da. Aurten Lehen Hezkuntzako maila hasi edo 6 urte betetzen duten haurren gurasoei deitzen zaie, hala nahi badute, pasa daitezela San Joan parrokiako Elkano kaleko lokaletatik ize- na ematera katekesian hasteko. Izena emateko aukera irailaren 14ean eta 15ean izango da, arra- tsaldeko 17:00etatik 18:00etara bitartean.

Matrikulazioa, gitarra ikastaroan

HERNANI MUSIKA ESKOLA

Zabalik da 9 urtetik aurrerako gazte eta helduentzat gitarra ikastaroko matrikulazio epea. Izena emateko bi txanda egin- go dira irailaren 8tik 14ra, biak barne (iazko ikasleentzat) eta irailaren 15etik 22ra, biak bar- ne (ikasle berrientzat). Saioak arratsaldez egingo dira urritik ekainera (biak barne), astean behin, eta ordubeteko iraupe- na izango dute. Izena emateko lekua Udaletxeko Harrera Zer- bitzuan da. Hitzordua eskatu behar da aldezturik, tele- fono zenbaki honetara deituta: 943 337 000. Eta matrikulazio prezioari dagokionean, Herna- nin erroldatutakoentzat 239,67 euro dira, eta Hernanin erroldatuta ez daudenentzat 290,67 euro. Familiaren diru-sarreraren arabera deskontuak egiteko aukera dagoela jakinarazi dute antolatzaileek. Informazioa 943 337 029 telefonora deituta eska- tu daiteke.

Ur eta hondakin tasen eta IBI zergaren laguntzak urriaren 30 arte

HERNANI UDALA

Urriaren 30 arte eskatu daitez- ke 2019ko Ondasun Higiezin- en gaineko Zerga (OHZ-etxebizitza- ren jabetzarengatik ordaintzen dena) eta 2020ko hondakin bil- keta eta ur-hornidura eta sa-

neamendu tasak ordaintzeko diru-laguntzak.

2019an eskaera egin zuten herritarrek ez dute eskaera ber- rria egin behar. Udalak lagun- tzak aurten ere jasotzeko bal- dintzak betetzen dituzten ala ez egiaztatuko du. Horren berri

emateko jakinarazpena bida- liko die 2019an eskaera egin duten guztiei. Beraz, HHZn hitzordua eskatu behar dute soilik iaz eskaera egin ez zutenek. Es- kaera 943 33 70 46 edota 688 69 63 79 (whatsapp) telefonoan egin daiteke eta postaz: [errenta@her-](mailto:errenta@hernani.eus)

nani.eus helbidean.

Diru-laguntzak honakoak dira: OHZren kasuan: %50 edo %25eko deskontua, familia uni- tatearen diru-sarreraren arabera. Tasen kasuan %100 edo %50a, familia unitatearen diru-sarre- ren arabera. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



XANTI JAUREGI ARTOLA

(Maite Mendiluceren alarguna)

Atzo hil zen, 83 urte zituela

- Goian bego -

Seme-alabak: Kepa eta Nekane, Tere eta Igor; biloba: Enaitz; anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Gure eskerrik beroenak Santa Maria Magdalena egoitzako langileei beren arretagatik.

Familiak jasotako doluminak eskertzen ditu eta gaur egungo osasun egoera ikusita, agurra senitartean egingo da.

Hernanin, 2020ko irailaren 5ean



XANTI JAUREGI ARTOLA

- Goian bego -

Nahiz eta gure artetik urrutira joan, beti izango zaitugu gure bihotzean

ZAPIAIN SANCHIZ SENDIA

Hernanin, 2020ko irailaren 5ean



XANTI JAUREGI ARTOLA

- Goian bego -

Beti izango zaitugu gure oroimenean

TXANTXANGORRI ELKARTEA

Hernanin, 2020ko irailaren 5ean



ANGEL MARI SASIAIN LOPEZ

XAXO

Besarkada bat familiari

HERNANIKO LAGUNAK

Hernanin, 2020ko irailaren 5ean



PAKO VALERO MUÑOZ

Oihane Valero Oruezabala irakaslearen aita

HERNANIALDEKO AEK-KO IRAKASLEAK

Hernanin, 2020ko irailaren 5ean



PAKO VALERO MUÑOZ

Besarkada handi bat Idoia, Oihane eta Amaia.

TXANTXILLA 2 BIZILAGUNAK

Hernanin, 2020ko irailaren 5ean



PAKO VALERO MUÑOZ

Besarkada haundi bat.

ORUEZABALA-EMEZABAL, ORUEZABALA-IRAOLA, ARABAOLAZA-ORUEZABALA

Hernanin, 2020ko irailaren 5ean



PAKO VALERO MUÑOZ

Animo eta besarkada handi bat familiari.

IZASKUN, JESUS ETA MADDI

Hernanin, 2020ko irailaren 5ean



FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...

Zentrala Latsunbe 7, Hernani



HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Buruntzaldeko euskaltegietan matrikulatzeko epea martxan da, eta «eskaintza zabala dago aurten»

Lan haundia egin dute 2020-2021 ikasturtea prestatzeko, eta Udal zein AEK-ko euskaltegietako kideek herritarrak parte hartzera animatu dituzte. «Ordutegi, maila eta erritmo zabalean aritu gara lanean guzti hau prestatzeko».

URUMEA EUSKALTEGIA

Atzo prentsaurrekoa izan zen Biterin, Buruntzaldeko euskaltegietan matrikulatzeko kanpainaren berri emateko. Bertan izan ziren kanpainari ahotsa jartzen Oier Agirresarobe Hernaniko Udaleko euskara zinegotzia, Mikel Arregi Andoaingo Udaleko euskara zinegotzia, Gurutze Salaberria Udal euskaltegietako ordezkaria eta Ixiar Erasuren, Hernaniko AEK-ko euskaltegiko irakaslea.

Matrikulazio epeak irekita

Prentsaurrekoaren helburua herritarrak euskaltegietan izena ematera eta matrikulatzera animatzea izan zen. «Matrikulazio epeak irekita daude denetan eta oraintxe da izena emateko aukera».

teko aukera».

Irailaren 30a da izena emateko azken eguna. «Eskolak aurrez aurrekoak, presentzialak, izango dira maila guztietan, eta autoikaskuntzarako aukera ere egongo da», azaldu zuten. Autoikaskuntzan tutoretzak, programazio pertsonalizatuak eta mintza-saioak egingo dira. Eta aurrez aurreko eskoletan baita ere, ikasle bakoitzaren banakako jarraipena egingo da eta irakaslearekin tutoretzak egingo dira astero.

Bi aukera horiez gain, online egiteko aukera ere badago. Maila guztiak (euskalduntzeko zein mailak egiaztatzeko) eta itzulpen gintza ikastaroa, 30 ordukoak dira. Eta bestalde, Foruko barnetegia urte osoan egongo da zabalik, baita ere.



Eskualdeko herrietako euskara zinegotziak, teknikariak, irakasleak eta euskaltegietako ordezkariak atzo, Biterin.

Eta matrikulazioaren inguruko informazioa helarazteaz gain, Agirresarobek prentsaurrekoan euskara ikasi eta hobetzearen garrantzia eta onurak azaldu zituen, euskaltegiek duten ardura azpimarratzeko. «Euskara ikasteak herriko bizimoduaren modu osoan parte hartzeko aukera ematen du eta, era berean, euskaraz bizi nahi dugunoi aukera zabalitzen digu hala bizi ahal izateko».

Horrekin batera, euskal hiztunak sortu eta hizkuntzaren

transmisioa garatzearen alde egiteko mezua zabaldu zuten guztiek.

Izan ere, hori da euskaltegietako helburu garrantzitsuenetarikoa bat. Irakasle eta euskara teknikariak lan haundia egin dute beraien mailaren prestakuntza pertsonalean, eta euskaltegietako ikasleei gertuko arreta eta konpromisoa adierazi nahi diete, «gure pasioa ahalik eta hobekien transmititu nahi dugulako», esan zuen Erasuren.

Diru-laguntzak matrikulentzat Helburua doako irakaskuntza izatea da. «Euskara doan ikastea aukera izatea nahi dugu, hala nahi duten herritar guztiek» esan zuen Arregik. Eta horregatik, Buruntzaldeko udalek beka sistema sendoak dituzte. Matrikulak finantzatzeko aukeraz gain, denetan %85etik gorako diru-laguntzak daude. Diru-laguntzen inguruko informazioa euskaltegietan eta Udaleko euskara zerbitzuetan eskuratu daiteke. **K**

Herritarrak auzo-konpostan parte hartzera animatzen ditu Udalak

Hondakin organikoak kudeatzeko sisteman parte hartzeko deialdia luzatu du Udalak, auzo-konpostagailuetik gertu bizi diren herritarrentzat.

ASTIGARRAGA AUZO-KONPOSTA

Auzo-konposta hondakin organikoak kudeatzeko sistema jasagarriena dela adierazi du Astigarragako Udalak. «Izan ere, gure etxeetan sortzen ditugun hondakinak auzoan bertan kudeatzea ahalbidetzen du, eta ongarri bezala erabili deza-kegun konposta lortzen dugu emaitza bezala».

Horregatik, herritarrak au-

zo-konpostan parte hartzera animatu ditu Udalak. Bereziki, auzo-konpostagailuetatik gertu bizi diren herritarrei zuzendu diete sistema honetan parte hartzeko deialdia. «Gure etxe-ko hondakin organikoak modu jasagarri batean auzoan bertan kudeatzeko sistema bat da auzo-konposta», azaldu dute.

Parte hartzen duen familia bakoitzak auzo-konposta gune bateko giltza dauka, eta bertara,

etxean sortzen dituen hondakin organiko guztiak botatzen ditu: fruta eta barazkiak, haragi eta arraina, landare hondakinak etab. «Gainera, hondakinen tasan hobari bat aplikatzen zaie familia parte-hartzaileei», adierazi du Udalak.

Parte hartzeko bideak

Auzo-konpostan parte hartzeko interesa duenak ondoko bideetatik jarri daiteke harremanetan Udaletxearekin: 900 102 838 telefono zenbakira deituta edo hondakinak@astigarraga.eus helbide elektronikora mezu bat idatzita. **K**

Endika eta Juaneneak finalerdiak nahi dituzte

Finalerdian egoteko 17 tanto egitea nahikoa dituzte gaur Galarretan. Irabazleak finalera sartzeko aukera izango du.

HERNANI ERREMONTEA

Kutxabank Torneoaren barruan finalerdietako ligaxkaren bosgarren partidua jokatu-ko da gaur Galarretan. Bertan, 17:00etatik aurrera Juanenea eta Endikak neurtuko dituzte indarrak eta garaileak finale-ra sailkatzeko aukera izango

du. Hori bai, horretarako azken partiduen zain egon beharko du eta azken partidua horretan Urriaz 16an geratu beharko luke Barrenetxearen aurka.

Gaurko lehiakideen helburu nagusia 17 tantora iristea izango da. Hori lortuz gero, bai bat eta bai besteak, datorren larunbateko finalerdia ziurtatua izango lukete.

Hala ere, partidua irabaztera irtengo dira. Biak emaitza hantzekoak lortu dituzte ligaxkaren bi partiduetan. Barrenetxea ongi gaintu zuten eta Urriazaren aurka ez zuten aukurarik izan. **K**

XXXVIII. BURUZ BURUKO ERREMONTE TXAPELKETA
KUTXABANK SARI NAGUSIA

Irailaren 5a

1. PARTIDA / 16:00-etan

GOIKOETXEA V vs URRUTIA II
ARRUARTE vs ZUBIRI

2. PARTIDA / 17:00-etan

ENDIKA vs JUANENEA

3. PARTIDA / 18:00-etan

ANSA II vs URRIZA
BARRENETXEA IV vs LARRAÑAGA

HERNANIARREK SARRERA

5 €



Pelotadenda.com



kutxabank



sukia



Neurri eskasak hartu direla salatzeke, irailaren 15erako EAEko hezkuntzan grebara joko dute

Sindikatu guztiek, ELA, LAB, Steilas, CC.OO. eta UGTek grebarako deialdia egin dute elkarrekin, Eusko Jaurlaritzak ikasturte berriari aurre egiteko hartutako neurriak eskasak direla salatzeke.

URUMEA HEZKUNTZA

Ikasturte berria hastear dago, eta horrekin batera, sindikatu guztiek greba deialdia luzatu dute. Joan den ostegunean agerraldia egin zuten, Eusko Jaurlaritzak ikasgelara bueltatzeko hartutako neurriak eskasak direla azalduz. «Eskoletara aurrez aurre itzultzeko Hezkuntza Sailaren kudeaketak onartezina eta arduragabea izaten jarraitzen du», azaldu zuten sindikatuetak bozeramaileek. Eta hezkuntza munduan lan egiten duten langileen ezinegona salatzeke, eta baita ikasle zein familien «ziurgabetasuna» salatzeke, irailaren 15erako EAEko hezkuntzan grebara deitu zuten.

Antolatu dutena hezkuntza osoari eragingo dion greba deialdia da. Eta pasa den ostegunean egindako agerraldian emandako arrazoien artean, sindikatuak azaldu zuten ikasturte berezi honen hasiera prestatzeko Eusko Jaurlaritzak ez dituela langileak kontuan hartu. Jakitera eman zuten Hezkuntza Sailak ez duela bilerarik egin sindikatuarekin eta beraz, langileen ahotsa eta iritzia itzalean geratu dela helarazi zuten.

«Ikasgeletara itzulera segurua eta adostua exijitzeko deialdia» Hezkuntza Sailak eskolara aurrez aurre bueltatzeko kudeaketa «onartezina, arduragabea, aldebakarrekia eta adostu gabekoa» dela azaldu zuten joan den eguneko prentsurrekoan. Horregatik, sindikatuak ikasgeletara bueltatzeko baldintza seguruak eskatuko dituzte, Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak «eskasak» direlako.

Sindikatuak azaldu zuten, joan den maiatzean Hezkuntza Sailak ikastetxetara aurrez aurre itzultzeko asmoa aurkeztu zuenean, sindikatuak abian jarri zuten eskoletara itzulera seguru eta adostu baten aldeko dinamika. Eta dinamika horren baitan, hainbat mobilizazio, idatzi eta ekimen gauzatu zituzten. Besteak beste, datorren ikasturteari begira, ekainean Sailari oinarritzko aldarrikapen komunak betetzea exijitu zieten, erregistratutako idatzi baten bidez. Dokumentu horretan

oinarrizko aldarrikapen komunak betetzea exijitu zieten Sailari: kurtso hasierarako plangintza eta irizpide orokorrak eragileekin eta sindikatuarekin negoziatzea; gertatu litekeen 3 eszenatoki ezberdinei egokituriko osasuna eta segurtasuna bermatzeko protokoloak langileen ordezkariarekin negoziatu, adostu eta betetzea; eta pandemiak sorturiko egoerari aurre egiteko beharrezko diren baliabide, ratio jaitziera eta langileen gehikuntza arautzea, dagokion kasuan baliabide ekonomiko, pedagogiko, formatibo eta pertsonalez hornitzeaz batera.

Hala ere, sindikatuen esanetan, eskaera guzti horiek ez dituzte bete. «Ekimen, eskaera eta idatzi haiek ordea, ez zuten erantzunik izan, eta ikasturte berriaren atarian, Hezkuntza Sailak jarrera berberarekin jarraitzen du», jakinarazi zuten joan den osteguneko prentsurrekoan.

«Sindikatuok interlokuziorik ez dago»

Joan den eguneko prentsurrekoan Hezkuntza Sailak hartutako erabakien aurrean desadostasuna adierazi zuten langileen ordezkariak. Jakitera eman zuten, «Sailak ez du argitu aurreikusitako zein eszenatokitan gaudela ulertzen duen ere». Sindikatuen esanetan, Sailak ez du beraien hitza kontuan hartu, eta horregatik, bi aldeek artean interlokuziorik ez dagoela salatu zuten. «Neurriak aurrera eramane beharko dituzten langileen ordezkariarekin ez da bilerarik egon, aldebakarrez prestatu dituen protokoloen berri komunikabideen bitartez izan dugu».

Egindako adierazpenean, gainera, salatu zuten Sailak langileen ordezkariak eta ondorioz, langileak, «etengabe mespretxen» dituela. Izan ere, azaldu zuten, «itunpeko patronalekin bildu den bitartean gurekin bildu gabe ere jarraitzen du».

Sindikatuak bozeramaileek adierazi zuten 2020-2021 ikasturterako aurkeztutako protokoloak «oso berandu» datozela, eta Sailak hezkuntza sare guztietarako irizpide komun eta argirik ez duela ezartzen helarazi zuten, erantzunen eske. Horregatik, sailak hartutako neurrietan



Haurrak ikasgelara sartzeko zirrarez, joan den urteko ikasturte hasieran.

«inprobisazioa nagusi» dela ere aipatu zuten.

Eta aipatutako beste gai bat abuztuko 28ko prentsurrekoan sailburuak 1.000 irakasleen kontratazioaren aukera izan zen. «Kopuru eskasa izateaz gain, ez dakigu zein irizpideren baitan egingo diren, noiz egingo diren, ez eta egingo diren ere. Aukera hau gainera irakasletara soilik mugatzen da, gainerako kolektiboetan ere plantila gehikuntzak erabat beharrezkoak liratekeenean».

«Sailak ez du argitu aurreikusitako zein eszenatokitan gaudela ulertzen duen ere»

Hainbat eskaera egin dizkiote EAEko Hezkuntza Sailari

Egoera ikusita, sindikatuak hainbat eskaera egin zizkion EAEko Hezkuntza Sailari.

Lehenik, langileen ordezkariarekin itzulerari begirako plangintza elkarbanatu, negoziatu eta adostu ahal izateko, Hezkuntza Sailak eta baita Patronalek interlokuzioa eta negoziatzeko aktibatzeke eskatu zuten. Bestalde, lehenengo egunetik lanpostu guztietan ordezkariak betetzea exijitu zuten, eta horrekin batera, ikasleen ratioak jaitea. Zehazki,

ikasgeletan pertsonako 3 metro karratu izatea, 1,5 metroko segurtasun distantzia eta espazio okupazio egokia bermatzeko, beti ere ikasgeletan 10-15 ikasleko gehienekoarekin. Eta aurreko eskakizunarekin lotuta, garbiketako ratioak egokitu eta metrajea zehazteko ere eskatu zuten, «langile propio gehiago kontratatuz eta azpikontratazioari mugak jarritz».

Egindako beste eskaeretak bat jangela zerbitzua ikasle guztientzat bermatzea izan zen. Horretarako, azaldu zuten beha-

«Neurriak aurrera eramane beharko dituzten langileen ordezkariarekin ez da bilerarik egon, aldebakarrez prestatu dituen protokoloen berri komunikabideen bitartez izan dugu»

rezkoa izango zela «distantziak mantentzeko beharrezko neurriak hartzea eta berrantolatzea, ratioak egokituz eta lanpostu guztiak mantenduz». Eta eskolako zerbitzuekin modu seguruan jarraitzeko, eskola garraioan ere segurtasun eta garbitasun neurriak eskatu zituzten.

Sindikatuak EAEko Hezkuntza Sailari egindako beste eskakizun bat arrakalak bideratzeko neurriak ezartzea izan zen. Beharrezkoak ikusten dituzte «arrakala pedagogiko, sozial, teknologiko, eta bereziki euskarari dagokionari erantzuteko bitartekoak», ikasturte berri hau hasteko. Izan ere, ikasgelan landu behar diren gaiak jorratzeko beharrezkoak dira hainbat baliabide. Eta horren inguruan ere egin zuten eskaera: curriculumaren egokitzapen eta murriztea eskatu zuten, ikasgelan landu beharreko errealitatei arreta jarritz: doluaren tratamendua, irakaskuntza telematikoa sortu duena, etab.

Zaurgarrienak diren eta osasun arazoak dituzten langileak babesteko neurriak ezartzeko exijitu zuten sindikatuak, eta egoera honen aurrean «kontziliatzeko arazoak» izango dituzten langileentzat ere segurtasun neurri horiek eskatu zituzten.

Eta azkenik, azken hilabeteotan oihartzuna izan duen gaiari eutsi zioten: langileen plantila gehikuntza. Zehazki eskatu zuten irakasle zein hezitzaile plantila gehitzea aipatutako ratioak betetzeko beharrezko kopuruan, eta jarduera osagarrietan beharrezko plantilan gehikuntzak egitea eta propioen kontratazio gehigarriak gauzatzeko eskaera egin zuten. **K**

Irailarekin batera eskolarako prestatzeko garaia heldu da

Hernaniko dende aukera zabala eskaintzen dute datorren ikasturte honetako estreinaldirako, ikasgelarako beharrezko den materialarekin.

Uda arraroa izan da herritar guztiontzat, baina eskolara eta lanera bueltatu aurretik behintzat, atsedena hartu eta des-konektatzeko aukera izan dute haur zein helduek. Inork ez daki datozen hilabetetan zer gertatuko den eta egoerak nola eboluzionatuko duen, baina argi dagoena da datorren ikasturte hau hasteko irrikitan daudela etxe-ko guztiak. Izan ere, ikasleak martxotik ez dira ikasgelara bueltatu eta denak dute gelako

lagunak ikusteko gogo haundia.

Eskolarako materiala ere beharrezkoa izaten da ikasturte berrian, eta etxe-ko txikienak hauek estreinatze-ko irrikitan egoten dira. Urumea bailarako dendetan dago materiala lortzeko hamaika aukera. Ikusi Makusi, Urbieta Kopiai eta Oria dende, esaterako, eskolarako behar den material eta zerbitzu guztiak eskaintzen dituzte. Agendak, koadernoak, gelarako zein jangelarako amantalak, motxila pertsonalizatuak,

ordenagailuak... denetarik dago herrian bertan.

Horregatik, udako oporren ostean hilabete politak ditugu aurretik, zirraraz beterikoak. Iraila hasi eta berehala etxe-ko txikienak urduri egoten dira beraien gelakideak ikusiko dituztelako gelan eta ziurrenik, irakasle zein gelakide berriren bat izango dutelako. Eta material berria estreinatzea ikasturte hasierako egitekorik gustukoena izaten da ikasleentzat.

Beraz, ikasturtea ondo hasteko prestatu beharrezko material guztia eta ondo ondo hasi eskolan, jada irailean murgilduta gaude eta! **K**

Material pertsonalizatua eskuratzeko hamaika aukera, Ikusi Makusin



HERNANI IKUSI MAKUSI

Etxeko txikienek eskolara joan eta beraien jantzirik politenak erakusteko aukera dute Ikusi Makusi dendarekin. Pilik jangelarako zein gelarako amantalak, motxilak, meriendako poltsak eta babero pertsonalizatuak egiten ditu haur eskolako umeentzat, baita zertxobait helduagoak direnentzat ere.

«Motxiletan aukera aparta dugu». Izan ere, eskolako materiala gordetzeko balio duen motxilen eskaintza zabala da Ikusi Makusin. Diseinu eta

etxe ezberdineko motxilekin, bakoitzak gustukoena duena aukera dezake.

Jaioberrientzat ere opariak egiteko aukera dago dendan. Eta gainera, bakoitzak gustuko duen modura pertsonalizatu ditzake oparitxoak. Hauek aurretik egin daitezke enkarguz, dendan bertan.

Helduak inbidiatan ez geratzeko, beraientzat ere badago materiala Ikusi Makusi dendan. Puzzleak edota mota askotariko jokoak eskuragai daude, haurrekin jolastera animatzen den etxe-ko edonorentzat.

Programa informatikoen instalazioa eta gailuak puntu-puntu, Orian

HERNANI ORIA

Geroz eta gehiago dira eskolan ordenagailuz egiten diren lanak. Oria informatika dendan etxe-ko ordenagailuak garbitu eta formateatzen dituzte, datorren ikasturte honetako ikasgaietan arazorik ez izateko.

Gainera, webkama duten pantailak eta ordenagailu portatilak ere badituzte. «Eskolak telematikoki egiteko agindua ematen badute, gure teknologia prest dago egoerari aurre egite-



ko». Eta salmentaz gain, ordenagailuak alkilerrean hartzeko aukera ere badago bertan.

Horretaz gain, Oria dendan

zuen gailuetan «sinpleak zein konplexuak» diren programak eta beharrezko edozein euskarri informatiko instalatzen dituzte.

Eskolarako premiazkoak direnak, hemen eskuragai



HERNANI URBIETA KOPIAK

Agendak, koadernoak, karpetak, mota guztietako boligrafo zein errotulagailuak... denetarik dago Urbieta Kopiai dendan. Euskarazko agendak eta kalkulagailu zientifikoak ere badituzte, eskolarako ezinbestekoak direnak.

«Eskaintza berezi moduan Oxford markako karpeta go-

madunak ditugu». Aste guztiko paper eta txostenak eramateko eta eskolako materialak modu ordenatuan izateko paregabeak dira.

Fotokopiai eta dokumentuak eskaneatzeko aukera ere badago Urbieta Kopiai dendan. Tamaina askotan inprimatu daitezke eskolatik bidalitako txostenak, eta enkoaderazio lanak ere egiten dituzte bertan.

Oria

Ordenagailu salmenta eta mantenua

Antziola, 30 C, behea. Hernani
Telf: 943 331 200

urbieta kopiai

Eskolarako materialean aukera zabala

Telefona: 688 635 561
Telefona / faxa 943 333 166
urbietakopiai@gmail.com
urbieta 7 - galeria 20120 hernani



ikusi-makusi

Jostailu berriak dendan!
Aukera aparta etxe-ko txikienentzat!

facebook.com/ikusimakusi

instagram.com/ikusimakusihernani

Nagusia, 7. Hernani

***** ☎ 843 63 04 69 📞 634 607 099



Garbiñe

// Kurtso berrirako testu liburuak

// Ikastolarako materiala

// Jostailu didaktikoak

// Eskulanak

Kale Nagusia 33 bis, Astigarraga • 627 000 549

«Taldea sinistuta dago edozertarako gai garela, Kontxako Bandera irabazteko ere bai»

Xabat Pastor hernaniarra Donostiarrarekin ariko da bihar eta datorren igandean Kontxako Banderan. Aurrean dabiltzan sei traineruak ikusten ditu irabazteko aukerekin.

URUMEA ARRAUNA

Kontxako Banderaren 125garren edizioa jokatu da aurten. Edizio berezia jendeari etxean gertatzeko mezua helarazi baitzaio. Pandemiak eragindako egoera horretan Xabat Pastor hernaniarra Donostiarran, Kaiarriba ontzian, ariko da bi jardunalditan eta «irabaztera» irtengo dira.

Kontxako estropadara nola iritsi da Donostiara?

Egia esan denboraldia oso oso borobila egin dugu. Orain Ligako sailkapenari begirada bat ematen badiogu ez digu asko eskertzen, Zarauzko asteburuak min asko egin zigun sailkapenean, baina asteburu hori kenduta erregularrenetakoak izan gara. Alde horretatik oso pozik gaude. Kontxara begira taldea sinistuta dago edozertarako gai garela, Kontxako Bandera irabazteko ere bai. Tope gaude eta gozatzeraz irtengo gara. Etorriko da etorri beharrekoak.

Etxean estropada irabazi zenuten. Beste batzuetan garaipenetik oso oso gertu geratu zarete, Portugaleten bezala. Denboraldiaren balantze orokorra ona izanik, Kontxa ginda litzateke?

Nik uste beste taldeekin alderatuta presio gutxiago dugula edo beraiek gehixeago izan dezaketela. Guri kinueletan askok ez digute kontuan hartzen, atzerago sartzen digute. Gu ez gara auke-
ratik urrun ikusten eta uste dut lehendabiziko sei trainerueta-
tik edozeinek irabazi dezakeela bandera.

Zarauzko ikurriña eta gero Ligan aukerarik gabe geratzeak Kontxako prestakuntzan lagundu du?

Asteburu horrek amorrua eman zigun. Sailkapenean oso gertu geunden aurreneko postutik, lehendabiziko laueta eta txanda nagusian eroso genbiltzan. Hori galtzeak amorru puntu hori sortu digu eta Kontxara begira jarri ginen arantza hori ateratzeko modurik onena delako. Erakutsi nahi dugu zertarako gai garen.

Liga berdindua egon da sailkapenean eta estropadetan ere alde gutxi egon da aurreneko sei taldeen artean.

Horrela da. Beste urtetan bi-hiru taldek alde ateratzen zuten edo faboritoago ziren. Besteek irabazteko aukera izaten zuten, baina urrutiago zeuden kondizioek lagunduz gero. Aurten berriz estropadara joan eta inork ez zuen argi faboritoa, edo sei taldeetatik edonork irabazi zezakeenaren sentsazioa egon da. Bakoitzak bere asteburu ona edo momentua izan du. Prestakuntzak eragin handia izango du.

Pandemiak hankaz gora jarri du kirola aurten eta arrauna ere bai. Nabaritu duzue?

Eragin zuzena izan zuen konfinatuta egon ginen ia hiru hilabete horietan ergometroan entrenatzen. Gero, egia esan, guretzako ezusteko ona izan zen traineruan hasi eta sentitzea hasiera hasieratik oso ongi zihoala ontzia. Alde horretatik ez genuen asko nabaritu. Hasieran gerrietako eta abdominaletako minak izan genituen, baina segituan moldatu ginen.

Zalerik gabe arraun egitea nabari al duzue? Arraro egiten zaizue?

Bai, batez ere estropada konkretu batzuetan. Adibidez Zarauzko ikurriñan eta Lekeitio asko, eta zer esanik ez Hondarribiakoan. Espigoia jendez lepo egoten da eta gertutik igarotzen zara za-
leen txaloen artean eta aurten ez zegoen inor ere ez. Bestetik, bere alde ona ere izan du eta arraunlariak eta trainerua la-
saiago egon gara 'kuri-soen' begiradarik gabe.

Benetako hustasuna Kontxako estropadan egongo da.

Hor bai eta pentsa agian irabaziko dugu edo pozik irtengo gara eta ez da zalerik egongo arraplan zain. Moldatuko gara, nahiz eta oso arraroa izan.

Denboraldi berezi hau orokorrean nolakoa izan da Xabat Pastorentzat?

Etxeko hiru hilabeteak kriminalak izan ziren. Saioak bideo-konferentziaz egiten genituen, baina gogorrena hori izan da. Denboraldian zehar asko disfrutatu dugu talde bezala. Orokorrean oso pozik nago eta ea orain borobiltzen dugun. Ea Ligan ere lortzen dugun bi postu igotzea. Gure helburua laugarren postu hori lortzea izango da. Sei punturen desabantaila dugu eta zaila izango da traineru gutxiagok hartzen dutelako parte.

Arraunean bakarrik ez, denboraldian zehar Hernanin gaztetxoekin aritzen zara entrenatzaile lanetan. Jarraituko duzu?

Aurtengo denboraldia oso arraroa izan da denentzat eta datorren denboraldian lanean hasiko naiz eta horrek denbora kenduko dit. Hala ere, astean zehar klubera laguntzera joango naiz bi egunetan. **K**



Xabat Pastor Donostiarraren lokalean.

Hernaniarrak ariko dira Tolosaldean, Hibaikan eta San Juanen

Aurten ordu bete aurreratu da estropada eta neskak 10:00etan hasiko dira eta mutilak berriz 11:00etan, iraileko lehendabiziko bi igandeetan.

URUMEA ARRAUNA

Kontxan arituko den arraunlari hernaniar bakarra ez da Xabat Pastor. Nesken Kontxako Banderan ere arituko dira neska hernaniarrak ontzi desberdinetan banatuta. Honela, Hibaika izango da hernaniar gehien dituen taldea eta bertan Xabaten arreba den Joane Pastortez gain, Garazi Arabiatorre, Nerea Irastorza, Uxue Alberdi eta Estitxu Zabala bertan ariko dira. Tolosaldean Itxaso Aranburu eta Eider Barba daude. San Juanen ere arraunean dabilta Olaia Barriuso, Naroa

Lizarreta eta Nahia San Argimiro.

Kontxako estropadak aurten ordu bete aurreratu dira eta neskak 10:00etan hasiko dira bi txandetan banatuta. Mutilen estropada 11:00etan hasiko da. Arraun Lagunak, Tolosaldea, San Juan eta Hondarribiak osatzen dute nesken lehendabiziko txanda eta Orio, Donostiara, Zumaia eta Hibaikak bigarren-
goa. Mutiletan aurrenekoan doaz Santurtzi, Urdaibai, Zarautz eta Donostiara. Bigarren txandan egingo dute arraun Oriok, Hondarribiak, Zierbenak eta Cabo Cruzek.

IRAGARKI MERKEAK

Goiz Eguzki Bilgune Sozialak fisioterapiari tituluduna behar du. Informazio gehiago: **670415133** telefonoan.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

EGURALDIA



GAUR

Gaur fronte bat iritsiko da eta laino ugari ekarriko ditu ipar isurialdera. Tenperatura bai, eragina izango du eta asko jaitsiko da. **Min.16° / Max.22°**

BIHAR




Giro motelarekin jarraituko dugu eta euri txikia egingo du noizean behin. Egun amaieran euri kontuak hegoaldera zabalduko dira eta zaparrada bakanak baino ez ditu botako. **Min.16° / Max.19°** (euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALITZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Odriozola Idiazabal, 18 (Umieta) **943 334014** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353



Hamaikakoa

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



Itzala

Bai dibertigarria tirolinal! Asma ezazu tirolinan doan honen itzal zuzena.



EGILEA: Garbine Ubeda (Aiurri)
TOKIOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaraturako atala.

SOLUZIOAK: Sartu www.plazanbazan.eus
web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Orak irakurtzeko aplikazio batekin irakuri





2020-2021 ikasturtea prestatzen buru-belarri aritu dira eskualdeko euskaltegiak hilabeteotan.

Euskara ikasi, berme guztiekin

Buruntzaldeko udalek euskaltegietak matrikulak ordaintzeko diru laguntzak ematen dituzte, euskara ikastea bultzatzeko. Eskaintza zabala dago eskualdean: zortzi euskaltegi daude. Buru-belarri aritu dira lanean guztiak, eta ikasturte berriari ekiteko prest daude.

BURUNTZALDEA EUSKARA

Buruntzaldea eskualdeko euskaltegiak jo eta ke lanean aritu dira 2020-2021 ikasturteko eskaintza prestatzeko. COVID-19aren pandemiak erabat aldatu du zentro horien egunerokoa: aurrez aurre egiten ziren saioak eta tutoretzak, online; gelak egokitu beharra, osasun eta higie-ne neurriak... Beharrezko osasun-neurriak hartu eta eskaintza zabala prestatuta, euskaltegiak ikasleei erakutsi eta laguntzeko prest daude. Gainera, beste abantaila bat ere edukiko dute ikasleek: matrikulazioak bultzatzea da eskualdeko udalen helburua, eta, horretarako, diru laguntza sortak eskaintzen dituzte; bateragarriak izan daitezke HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Era-kundeak ematen dituenarekin. Hortaz, eskualdeko herritarrei ia doan eta zenbait kasutan doan atera dakieke ikastaroa. Euskaraz ikasiko dute, berme guztiekin.

Aurreko ikasturteetan euren buruei jarritako helburua lortu dute Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuek: 1.000 ikasleen langa gainditzea. 2018-2019 kurtsoko datuen arabera, 1.043 herritar aritu ziren euskaraz ikasten eskualdeko euskaltegiaren batean. 2019-2020 ikasturteko matrikulazioen behin betiko kopuruak irail amaieran jakingo dituzte euskara zerbitzuek.

Zortzi euskaltegi daude guztira eskualdean. Bina Lasarte-Orian eta Hernanin, eta bana Urnietan, Hernanin, Andoainen eta Usurbilen.

Buruntzaldea osoko eskaintza aintzat hartuta, non aukeratu badago. Asteaz lau egunez gehienez, goizetik iluntzera arteko ordutegietan, zortzi euskaltegi horietan bakoitzaren beharren arabera ikastaroak ematen dituzte. Hasteko, maila aldetik; A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 egiteko aukera dago. Nork bere kabuz autoikaskuntzan ikasteko abagunea ere badu. Tutoretzak, programazio pertso-

nalizatuak eta mintza-saioak eskaintzen ditu ikastaro mota horrek.

Mintzalagun, Gurasolagun, Zilegi Eskola... Eskolez gain, beste alderdi praktikoagoa ere eskaintzen dute euskaltegiek, ikasitako guztia praktikan jartzeko eta mintzamina lantzeko. Beste ekintza osagarri batzuk ere eskaintzen dituzte euskaltegiek, hala nola, irteerak, txangoak...

Udalen laguntza

Buruntzaldeko udalek ematen dituzte diru laguntzak euskara ikasteagatik –eskuin aldeko taulan kontsulta daitezke–. Bakoitzak bere baldintza propioak ditu, baina badira ezaugarri komun batzuk. Esaterako, gutxieneko asistentzia bete behar da, eta errolatuta egon behar da herrian bertan. Langabetuei are laguntza handiagoak ematen dizkiete; %100 kasu batzuetan, 500 eta 600 eurora arteko muga- gapean.

Horrez gain, HABE ere diru laguntzak ematen ditu. 2020. urtean 3.150.000 eurokoak, Ondokoak dira baldintzak: bate-tik, 2019ko martxoaren 25etik 2020ko abuztuaren 31ra bitarte-ko epealdian euskaltegi edo euskararen zentro homologatu batean matrikulatuta egon izana; bestetik, 2019-2020 ikasturtean HABEren maila bat edo balio- kideren bat egiaztatzea. 2020ko

irailaren 4tik urriaren 9ra eska daitezke laguntza horiek.

Buru-belarri lanean

Eskualdeko euskaltegiek herri-tarrak animatzen dituzte 2020-2021 ikasturtean matrikulatze-ra. Hernaniko Udal Euskaltegiak egokitzapen lan handia egin du hilabete hauetan: presentzialak ziren saio guztiak online, eskola orduak eta ikasleen egoera errespetatuz; osasun eta higie-ne neurriak ikasgeletan ezarri; eta beste hainbat. «Eskertu nahi dugu Hernaniko Udalak eman digun laguntza, oso ongi erantzun die gure eskaerei hilabeteotan», azpimarratu du Gurutze Salaberria zuzendariak. Pandemiaren egoera zeinahi dela ere, prest daude. Hiru aukera aurrei-kusi dituzte ikasturte berrirako: presentzialak diren saio guztiak online; erdiak fisikoki eta erdiak Internet bidez; edo %100ean etxetik, telematikoki.

Lasarte-Oriako Munterri-AEK euskaltegiko langileek ere lan ikaragarria egin dute COVID-19aren pandemiak eragin-dako ezohiko egoerara moldatu eta hastear den ikasturtea prestatzeko. «Ez dugu ezer gertatu ez balitz bezala jokatu, beharrezko neurri guztiak hartu baititugu; herritarrei esan nahi diegu animatzeko euskara ikas-tera eta ez izateko matrikulatze-ko beldurrik». **K**

ESKUALDEKO UDALEN DIRULAGUNTZAK

ANDOAIN

Baldintzak: Andoainen errolatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.

Laguntzak: matrikularen 85 ikasle guztiei; familia ugari-ko edo errenta txiki-koei, %100. Autoikaskuntza, %100. 664 eurora arteko muga.

ASTIGARRAGA

Baldintzak: Astigarragan errolatuta egotea. Asistentzia minimoa: %85.

Laguntzak: Matrikularen %75 guztiei, 600 euroko mugarekin. Familia ugari-koei, errenta txiki-koei, eta abar: matrikularen %100.

HERNANI

Baldintzak: Hernanin errolatuta egotea. Gutxi-neko asistentzia: %85.

Laguntzak: Matrikularen %70. Langabeei, %90. 500 euroko muga. Finantzazio aukera desberdinak.

LASARTE-ORIA

Baldintzak: Lasarte-Orian errolatuta egotea. Gutxi-neko asistentzia: %85.

Laguntzak: ohiko diru laguntza, matrikularen %85.

URNIETA

Baldintzak: Urnietan errolatuta egotea. Asistentzia minimoa %80.

Laguntzak: matrikularen %85, 600 euroko mugarekin. Langabeei, matrikularen %100.

USURBIL

Baldintzak: Gutxieneko asistentzia: %80.

Laguntzak: guztiei, matri- kularen %100. 600 eurora arteko muga.

*Buruntzaldeko udalek %70 - %100
artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!*

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**
Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2.
andoain@aeik.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
607 62 52 33
lasarte@aeik.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801 607592864
Zilegi eskola: 663043314
hernani@aeik.eus

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@aeik.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
607610687
astigarraga@aeik.eus

**Lasarte-Oriako Udal
Euskaltegia**


Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko Udal
Euskaltegia**

Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.eus
943 331 896

URNIETA

Urnietako AEK
Errekalde kalea, 1
662 33 87 47
urnieta@aeik.eus



«Portalondotik herritar ugari pasatzen da eta gazteen euskera maila benetan haundia da»

Portalondo estankoa Hernanin erreferentzia da eta aurtengo Euskaraldian arigune izango da. «Heldu asko ez da ausartzen euskeraz egiten zailtasunak dituztelako. Ea orain gehiago animatzen diren» dio Jon Urdanpilletak.

HERNANI EUSKARALDIA

Portalondo estankoa ere parte-hartuko du aurtengo Euskaraldian. Tradizio eta urte askoko denda da herrian, erreferentzia da hernaniarrentzat. Abenduan egingo den dinamika taldeei zuzendutakoa da, baita komertzioena ere eta hor sartzen da Portalondo. Familia negozioan sei langile ari dira lanean bertan.

Aurtengo erronka azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitarte egingo da. Helburua «hizkuntza-ohiturak aldatzea da», eta ariketa 16 urtetik gorakoentzat dago zuzenduta.

Antolatzaileek gogorarazi dute irailaren 27an bukatuko dela talde-dinamikan parte hartzeko apuntatzeko epea. Norbanakoen txanda irailaren amaieran helduko da. Orduan irekiko da izen-emate epea, hilaren 24an.

Apustu soziala da Euskaraldia, eta badirudi Hernanin arrakasta izango duela, aurtengo ere. Izena emateko epea ireki zenetik, 50 taldetik gora animatu dira ekintzan parte hartzera. Leire Otxotorena da Hernaniko Euskaraldiko arduradun nagusia eta dio, «entitate diogunean era guztietako talde motei buruz ari gara: talde soziokulturalak, kirol taldeak, auzo taldeak, elkarte gastronomikoak, dendak, tabernak, jatetxeak, enpresak...».

Portalondo dendetan sartzen da eta helburua gutxienez langileen artean euskara hizkuntza nagusi bezala sustatzea izango dute. Arigune izango dira

eta hizkuntza-praktikak euskarara aldatzea edo finkatzea du helburu. Arigunea entitateak sustatzen du ariguneko kideen adostasunarekin, erabaki kolektiboa hartuta.

Ariguneetan belarriprest eta ahobizi izatea askoz errazagoa da, kide guztiek euskeraz ulertzen dutelako edo herritarrei aukera ematen zaielako euskeraz egin ahal izateko. Jon Urdanpilletak dioen bezala «hemen denetik egiten dugu. Erdi bidean gaude. Hizkuntza asko aldatu behar izaten dugu bezeroengatik. Euskeraz hasten gara eta aldatu behar izaten dugu bezeroak euskera ulertzen ez delako».

Langile guztiek dakigu Portalondon euskeraz

Euskaldunek beraz Portalondon ez dute hizkuntza aldatu beharrik izango, bertan denak baitira euskaldunak. «Langile guztiak dakigu euskeraz eta bertara etorri eta euskeraz egiteko ez dago arazorik».

Hernaniarren aldetik euskeraz asko entzuten dute dendan, baina gaztelera ere asko erabiltzen da. «Hemendik jende asko pasatzen da. Erosketa haundiak ez dira egiten, baina mugimendua badago. Horrek eragiten digu gure hizkuntzaren erabilerran. Orain euskera gehiago erabiliko dugu gure artean. Ariketa azaroan hasiko da, baina aurretik ohiturak aldatzen goaz».

Diru gutxi erosketa bakoitzean, baina kopuru aldetik erosketa asko. Hori da Portalondoren ezaugarrietako bat eta euskerari lotzeko ederki da-



Portalondo arigune izango da aurtengo Euskaraldian.

tor. «Euskera beti ez dugu erabiltzen, baina jende askorekin bai. Gutxinaka-gutxinaka ohiturak aldatzen dira». Eta hori argi eta garbi ikusten du Jon Urdanpilletak gazteen artean. «Guregana adin guztietako jendea etortzen da eta gazteengan nabaritzen dugu euskerarekiko duten errespetua. Gehien erabiltzen dutenak dira eta gainera oso ongi hitz egiten dute. Umeak maila haundia dute eta nabari da ikastoletan lan oso ona egi-

ten dela».

Dendan nabaritzen dute heldu askok ere ulertzen dutela, baina «ez dira ausartzen euskeraz hitz egitera. Zailtasunak dituzte eta asko nabaritzen dugu». Ariketa honek konplexu horiek alde batera uzteko balio dezake.

2018ko Euskaraldian bezala, herritarrok ahobizi edo belarriprest izaten jarraitzeko aukera ere badago, ahal dugun etxekoekin, ezagunekin, kuadrilakoekin, ikaskideekin, ahal dugun lan-

kideekin eta sor daitezkeen arigune berrietako kide guztiekin. «Aukera hori ere badago arigunea izateaz gain eta jendeak parte-hartzea da garrantzitsua, modu batera edo bestera euskera eguneroko hizkuntza bihurtzea. Ariketa hauek asko laguntzen dute euskeraren erabilpenean. Orain dela bi urteko ariketak arrakasta izan zuen eta ea lortzen dugun denon artean aurtengo ere arrakastatsunean eragina izatea». **K**

musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL AUZOA, 4 - behea ezherria
MATRIKULA ZABALIK
irailaren 15era arte
KLASEAK ASTE HONETAN HASI DIRA
Helduen ikasketak bereziak eta bakarkakoak dira.
Taldea txikietan egingo da lan.
IMANOL KAMIO
musika eskola
DOINU-ZALE
943 33 12 33 - 637 85 79 62

NOAOA
BIDAIAK
Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa
943 37 36 13
Orduetgia:
09:30-13:30
Aurretiko hitzordua beharrezkoa da
info@noaoa.eus